

Obarra: EUSKERA hau inprimerian delarik agertu da *Canto a Joxe* (Publicaciones del «Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra», núm. 3. San Sebastián, 1972) izeneko bilduma liburua. Joxe Artetxe zenari buruz heriotza ondorean agertu ziren lanik gehienak jasotzen dituena.

JOSE LUIS JAUREGI ETXENAGUSIA (1896-1971)

1971eko urtarrilaren 2an hil zen Zarautzen J. L. Jauregi. Errendarian sortua zen 1896ko ekainaren 19an.

Apaiza eta Euskaltzaindiaren laguntzailea. «Jautarkol»ez (Jauregi'tar Koldobika) kasik ezagunagoa genuen. Ipuin idazlea, bere «Egizko edertasuna» izeneko ipuina Euskaltzaindiak saritu zuen 1923an. Olerkari lirikoa, Euskaltzaleak elkarteak antolatzen zituen olerki sariketetan parte hartzen zuena. «Euskal-Esnalea», «Argia», «Yakintza», «Euzko-gogoa» aldizkarietan kolaboratu zuen.

Bere liburuak: *Egizko edertasuna* (Bermeo 1923), *Ipuiak* (Donostia, 1924), bigarren agerraldia Zarautzen 1953an, baina, lehengoak «Erein maitasunez» du bigarrenak ez duena eta honek «Andre Joxepantoni» du aurrezkoan agertzen ez den ipuina; olerki bilduma, *Biozkadak* (Iruña, 1929); saiakera, *Xenpelar bertsolaria* (Zarautz, 1958); eta Camilo José Cela-ren *Paskual Duarte'ren sendia* (Zarautz, 1967) euskaraturik argitaratu zuen.

José de Arteche zenak, *Caminando* (1947) liburuaren 57/61 orrialdeetan «El poeta de Machinventa» izenez goraiatu zuen olerkari bezala.

Bere lumaz, lan pizkarriak eskaini zizkion euskarari, baina batez ere mende honen lehen partean gure literatur bizkortze ekintza lanetan jardun ziren haietako bat genuen. G. B.

J. S. M.